

PORTAFOLIOEN BERRIKUSPENA Central Illustration Agency

1.- HELBURUA

Euskal Irudigileen IX. Topaketen barruan, [Euskal Irudigileak-Euskadiko Ilustratzaileen Elkarte Profesionalak](#) deialdia egiten du 22 ilustratzailek beren portafolioa aurkeztu diezaioten Londresko CIA Ilustratzaile Agentziako Tess Redburn artistari. Hautatuek aukera izango dute beren lana agente horri erakusteko eta bertatik bertara berarekin komentatzeko.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Deialdi honetara aurkeztu daiteke Espainiako Estatuan bizi den edozein naziotasuneko edozein ilustratzaile, adin mugarik gabe.

3.- ESKARIEN AURKEZPENA, EPEAK ETA DOKUMENTAZIOA

Parte-hartzaile bakoitzak PDF bat ekarri beharko du erantsita doan plantillan esaten den eran, eta bertan sartuko ditu argazki edo erretratu bat, biografia laburra, eta bost irudi bere lanaren erakusgarri.

PDF horrek ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Neurria: DinA4.
- Bereizmena: 72 ppp.
- Kolorea: RGB.

Dokumentazio guztia emailaz tramitatuko da helbide honetan: info@euskalirudigileak.com.

Eskariak aurkezteko **epea urriaren 30eko 12:00etan amaituko da.**

Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaririk, ez eta oinarrietako baldintzak betetzen ez dituenik.

Inskripzioa emailaz konfirmatuko da.

4.- AUKERAKETA

Eskariak jaso eta epea bukatu ondoren, agenteak eskariak baloratuko ditu eta erabakiko du zein ilustratzailek izango duten aukera beren lana berari

erakusteko eta berarekin solastatzeko.
Erabakia apelaezina izango da.

5.- ESKARIEN EBAZPENA

Ebazpena **azaroaren 4an** jakinaraziko da.

Ebazpena jendaurrean jarriko da Elkartearen web orrian:
www.euskalirudigileak.com.

Horrez gain, aukeratutako ilustratzaileek mezu pertsonal bat jasoko dute emailaz, ebazpenaren berriarekin eta zenbait argibiderekin.

6.- EGUNA

Portafolioen berrikuspena **Andra Maria kaleko 3-1B helbidean (Elkartearen bulegoan) egingo da azaroaren 11n**, 09:00etatik 11:00etara eta 11:20etatik 13:00etara bitartean.

Argitasun gehiago behar izanez gero, idatzi hona: info@euskalirudigileak.com